

- [1. Disjuntzioaren baieztapenaren falazia](#) (Gauza baten ala bestearen aukera ematerakoan (ala biak), orduan, lehenengo gauza ematen bada bigarrena ematen ez dela ondorioztatzean)
- [2. Ondorioaren baieztapenaren falazia](#) (“p ematen bada, orduan q ematen da”)
- [3. Aurrekariaren ukazioaren falazia](#) (premisia faltsua bada, ondorioa ere faltsua izango dela baieztatzean)
- [4. “Ad hominem”](#) (bestea erasotuz)
- [5. Txorimaloaren falazia](#) (aurkariaren argudioen karikatura, exageratzea)
- [6. Dilema faltsua](#) (auzi batek soilik bi konponbide dituela sinestaraztea)
- [7. Falazia genetikoa](#) (pasatakoai begiraturaz, gaur egungo egoera kontuan hartu gabe)
- [8. “Tu Quoque” falazia](#) (besteai akusazioa bat ere egin, zu ni baino lodiago...)
- [9. “Ad Verecundiam” falazia](#) (sineskera bat justifikatzeko autoritate desegokia erabili)
- [10. “Ad Populum” falazia](#) (jendearen gehiengoak auzi horren inguruan duen iritzian oinarrituz soilik)
- [11. Bi gaizkik ongi bat egiten dute](#) (gaizki dagoen beste ekintza batek lehenengo ekintza txarra konpontzeko balio du)
- [12. Anfibologia](#) (Ordenamendu edo egitura ez-argiek eragiten dituzten esanahi anbiguoak)
- [13. Gehiegizko sinplifikazioa](#) (falazia bat modu sinpleegian aurkezten denean)
- [14. Kausa faltsuaren falazia](#) (premisen eta ondorioaren arteko erlazioa errealitatean existitzen ez den ustezko konexio kausal baten menpe dagoenean)
- [15. Malda irristakorraren falazia](#) (argudio baten ondorioa gertaera kate batengatik ustez ematen denean)

1. Disjuntzioaren baieztapenaren falazia

Gauza baten ala bestearen aukera ematerakoan (ala biak), orduan, lehenengo gauza ematen bada bigarrena ematen ez dela ondorioztatzean oinarritzen da. Disjuntzio bat planteatzeak (“hau edo bestea”) ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko elementu baten egiak beste elementuaren ukazio automatikoa ekartzen duenik.

Adibideak:

1. Obamarekin bi aukera dauzkazu. Edo gizon erlijioso dela sinesten duzu, edo gezurti hutsa dela sinesten duzu.
2. Anek katuak edo txakurrak gustuko ditu. Badakit Aneri katuak gustatzen zaizkiola. Beraz, Anek ez ditu txakurrak gustuko.

AZALPENA:

Anek ingelera edo frantsesa daki. Aneren lagunak Anek ingelera dakiela esan zidan. Ondorioz, Anek ez daki frantsesa.

Disjuntzioaren baieztapenaren adibide garbia da aurreko argumentazioa, izan ere, gauza baten ala bestearen (ala biak) aukera ematen da eta, orduan, lehenengo gauza ematen bada bigarrena ematen ez dela ondorioztatzen da. Baina, noski, disjuntzio bat planteatzeak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko elementu baten egiak beste elementuaren ukazio

automatikoa ekartzen duenik. Argumentazioak modu okerrean “edo” inklusibo bat “edo” bateraezina izango balitz bezala interpretatzen dugunean gertatzen da.

Adibide zehatz honetan, Anek frantsesa ez dakiela dion ondorioa ez dago justifikatuta, hirugarren aukera bat posiblea baita: Anek ingelera eta frantsesa jakitea. Hau da, norbaitek ingelera jakiteak ez du inplikatzeko pertsona horrek frantsesa ere jakin ezin duenik.

2. Ondorioaren baieztapenaren falazia

Falazia hau “p ematen bada, orduan q ematen da” baieztapenen moduko baldintza adierazpenen forman eman ohi da. Ondorioa baieztatzen denean, aurkakoa ere egiazkoa dela ondorioztatzearen akatsa ematen da: “q ematen bada, orduan p ematen da”. Baina, noski, “p ematen bada, orduan q ematen da” adierazpenaren kontrakoak ez du zertan nahi eta nahi ez egiazkoa izan behar.

Adibideak:

1. Euria egiten badu, espaloiak bustitzen dira. Espaloiak bustita daude. Beraz, euria egin du.
2. Espainian baldin banago, Europan nago. Europan nago. Beraz, Espainian nago.

AZALPENA:

Igerilekuan erortzen banaiz bustiko naiz. Bustita nago, beraz, igerilekuan erori behar izan dut.

Aurreko argumentazioa ondorioaren baieztapenaren falaziaren adibide bat da, izan ere, bi gertakarien arteko kausa-ondorio erlazioa onartzerakoan, ondorioa ematen bada, kausa ere ematen dela ondorioztatzen baita.

Adibide zehatz honetan, guztiz posiblea da ni bustita egotea igerilekuan erortzearekin zerikusirik ez daukaten arrazoiengatik, hala nola euria aritzea eta euritakorik ez edukitzea, norbaitek ni tutu malgu batekin busti izana, e.a.

3. Aurrekariaren ukazioaren falazia

Ondorio batek premisa bat jarraitzen duela baieztatzen bada, orduan, premisa faltsua bada, ondorioa ere faltsua izango dela baieztatzean. Hortaz, aurrekaria ukatzen bada, ondorioa ere ukatu behar dela modu okerrean ondorioztatzean oinarritzen da falazia hau. Baina, noski, argi eta garbi, honek ez du zertan nahi eta nahi ez honela izan behar.

Adibideak:

1. Elurra egiten badu, hotza egiten du. Ez du elurrik egiten. Beraz, ez du hotzik egiten.
2. Ikasten badut gaintituko dut. Ez dut ikasi. Beraz, ez dut gaintituko.

AZALPENA:

Kirola egiten badut nekatzen naiz. Ez dut kirolik egin. Beraz, ezin dut nekatuta egon
Aurrekariaren ukazioaren adibide bat da hau, ondorio batek premisa bat jarraitzen duela baieztatzen baitu eta, orduan, premisa faltsua bada, ondorioa ere faltsua dela

ondorioztatzen du. Baina, noski, argi eta garbi, honek ez du zertan nahi eta nahi ez honela izan behar.

Kasu honetan, kirolak egin ez izanak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko nekatuta egon ezin naitekeenik, kirola egiteaz aparte, nekatuta egoteko bestelako arrazoiak egon baitaitezke: gaizki lo egin izana, gogor lan egin izana, e.a

4. “Ad hominem”

Helburua, normalean, baieztapen edo ikuspegi zehatz bat defendatzeko duen pertsonaren izena zikintzea da, onarpen soziala ez duen eta ustez ezkorra den pertsona horren ezaugarri edo sineskera bat azpimarratuz. Pertsona horrek planteatzen duen arazoari edo objektu bati argudioen bidez aurre egin beharrean, egiten dena pertsona erasotzea da.

Adibideak:

1. 1. pertsona: “Estatuak ez ditu hiritar guztien oinarrizko beharrak asetzen”.
 2. pertsona: “Zuk beti zure oinarrizko beharrak ase baino gehiago izan dituzu, beraz, ez dakizu ezer Estatuak asetzen dituen ala ez dituen oinarrizko beharrei buruz”.
2. Nancy Pelosi, alderdi demokrataren bozeramailea, Artikoa petrolio eta gasa aurkitzen saiatzeko esplorazioen kontra azaldu izan da beti. Baina, besterik espero al genezake? Izan ere, San Franciscoko hiriaren ordezkaria da eta San Francisco ekologistaz beterik dago. Esplorazioen kontra azalduko ez balitz, hurrengo hauteskundeetan ez litzateke berriz hautatua aterako. Beraz, haren argudioak gai honen inguruan ez lirateke kontuan hartu behar.

AZALPENA:

Nietzscheren filosofia okerra da, Nietzschek errotuta amaitu zuen eta.

Argumentazio hau ad hominem falaziaren adibidea da, baieztapen edo ikuspegi baten faltsutasuna ontzat jotzen baitu baieztapenaren/ikuspegiaren defendatzaileari erreparatuz eta defendatzailea erasotuz

Kasu honetan, Nietzscheren filosofiaren balioa ukatzen da, ez Nietzscheren ideien kontrako arrazoiak eta argudioak aurkeztuz, Nietzscheren filosofia Nietzsche erotu zelako zikinduz baizik. Baina, noski, Nietzscheren ideien balioak ez du zerikusirik haren gaixotasunarekin, hau da, Nietzsche gaixo egoteagatik bere ideiek ez dute inolako baliorik galtzen (ezta irabazten ere).

5. Txorimaloaren falazia

Txorimaloaren falaziaren funtsezko ezaugarria aurkariaren argudioen edo ikuspegiaren karikatura egitea da, aurkariaren argudioak edo ikuspegia desitxuraturik, handikatuz eta/edo aldatuz. Aurkariaren argudioak edo ikuspegia desitxuratzeko moduak desberdinak izan daitezke: (1) Aurkariaren argudioak edo ikuspegiak benetan direnak baino ahulagoak edo eztabaidagarriagoak izan daitezkeen aurkeztea; (2) Aurkariaren ikuspegiaren kasu edo adibide okerrera ala muturrekoena bilatzea eta kasu edo adibide guztien adierazletzat jotzea; eta (3) Ikuspegi barregarri bat asmatzea eta aurkariari egozte.

Adibideak:

1. 1. pertsona: "Arriskutsua da nerabeak oporretan bakarrik joaten uztea".
2. pertsona: "Gure seme-alabak etxean giltzaperatzea kaltegarria da haien garapen emozionalarentzat".
2. 1. pertsona: "Egungo krisialdi ekonomikoa kontuan hartuta, gaur egungo gastu militarra mantentzea onartu ezin dugun luxua da. Diru hori beharrezkoagoak diren gauzetan inbertitu beharko genuke: hezkuntza, osasun publikoa, langabetuei diru-laguntzak, e.a.".
2. pertsona: "Hortaz, gure defentsak alde batera uztearen eta gainerako herrialdeen aurrean ahul azaltzearen aldekoa zara".

AZALPENA:

1. pertsona: "Ez zait egokia iruditzen 16 urtez azpiko adingabeak gauean bakarrik parrandan ateratzea".

2. pertsona: "Orduan, etxetik bakarrik parrandan ateratzeagatik lapurrak bilakatuko dira eta drogekiko menpekotasuna garatuko dute?".

Txorimaloaren falaziaren adibide garbia da aurrekoa. Bigarren pertsonak lehenengo pertsonaren argudioen edo ikuspegiaren karrikatura egiten du, aurkariaren argudioak edo ikuspegia desitxuratuz, handizkatuz eta/edo aldatuz.

Adibide honetan, lehenengo pertsonak egiten duen baieztapenak ez du inolaz ere inplikitzen etxetik bakarrik parrandan ateratzeagatik 16 urteko adingabeak lapurrak bilakatuko direnik eta drogekiko menpekotasuna garatuko dutenik. Lehenengo pertsonak defendatzen duen gauza bakarra 16 urtez azpiko adingabeak gauean bakarrik parrandan ateratzearen desegokitasuna da. Bigarren pertsonak lehenengoaren ikuspegia desitxuratzen du ikuspegia barregarri uzteko eta ahulago bilakatzeko helburuarekin.

6. Dilema faltsua

Dilema faltsuak falaziak dira zuzena ez den hurrengo arrazoibidea erabiltzen dutelako: arazo edo auzi batek soilik bi konponbide edo aukera desberdin dituela baieztatzen dute baina, errealitatean, planteatutako bi konponbide edo aukerez aparte bestelako konponbide edo aukerak daude. Dilema faltsuek, beraz, arazo/auzi konplexuak termino sinpleegietara murrizten dituzte edo, nahita planteatzen direnean, zilegi diren bestelako aukerak nahita baztertzen dituzte.

Adibideak:

1. Edozein naziok, munduko edozein lekuan, erabaki behar du orain. Edo gurekin zaude, edo terroristekin zaude.
2. Barack Obama: presidente handia ala EE.BB.tako historiaren presidente hoberena?

AZALPENA:

Konponbidearen parte ez bazara, arazoaren parte zara.

Aurreko baieztapena dilema faltsu bat da arazoa edo auzia aurkezterakoan soilik bi konponbide edo aukera desberdin ematen dituelako baina, errealitatean, planteatutako bi konponbide edo aukerez aparte bestelako konponbide edo aukerak egon badaude.

Kasu honetan, ez da zertan onartu behar konponbidearen parte ez izateak nahi eta nahi ez arazoaren parte izatea inplikatzeko duenik. Adibidez, kontuan hartzen ez diren bestelako aukerak daude, hala nola: neutrala izatea ala arazoaren aurrean axolagabekeria erakustea (arazoaren konponbidea, zeharka ala zuzenki, bultzatu edo oztopatu gabe).

7. Falazia genetiko

Falazia genetiko ondorio baten alde edo kontra ondorioaren jatorrian oinarrituz soilik argudiatzen denean ematen da. Batzuetan ideia, teoria edo erakunde baten balioa defendatzen/kritikatzen da haren jatorriari edo aurreko egoerari erreferentzia eginez eta, beraz, gaur egungo egoerari inolako erreferentzia egin gabe. Orokorrean, jatorrizko egoeraren ebaluazio positiboa/negatiboa gaur egungo ebaluaziora pasa egiten da falazia honetan.

Adibideak:

1. Ez duzu ezkontza eraztuna jarriko ezta? Ez al dakizu ezkontza eraztunak, hasiera batean, emakumeen orkatilan, senarrendandik urrundu ez zitezen, jartzen ziren kateak sinbolizatzen zituela?
2. Ulertezina da Ionek Fisikako Nobel Saria irabazi izanak. Elkarrekin eskolara joan ginen eta klaseko tontoena bera zen.

AZALPENA:

Frankisten seme-alabak faxista hutsak dira.

Goiko baieztapena falazia genetikoaren adibide da, ondorioaren alde edo kontra ondorioaren jatorrian oinarrituz soilik argudiatzen delako, hau da, ondorioa defendatzen/kritikatzen da haren jatorriari edo aurreko egoerari erreferentzia eginez eta, beraz, gaur egungo egoerari inolako erreferentzia egin gabe. Baina, argi eta garbi, gauzen jaiotzaren edo gauzak iraganean nolakoak ziren inguruko judizioek ez daukate zerikusirik gaur egun gauza horiek merezi duten ebaluazioarekin.

Adibide zehatz honetan, pertsona baten aita/ama frankista izateak ez du halabarrez inplikatzeko seme-alabak ere frankistak/faxistak izan behar dutenik, guztiz posiblea baita gurasoen eta seme-alaben ikuspegi politikoak desberdinak izatea, pertsona baten jatorriak ez baitu nahi eta nahi ez haren ideologia politikoa determinatzen.

8. "Tu Quoque" falazia

"Tu quoque" falazia jasotako akusazio edo kritika bat argudioekin/arrazoiekin erantzun beharrean, atentzioa desbideratzean oinarritzen da, atentzioa desbideratzeko aurkariak ere akusazioak/kritikak leporatzen duen jokabide berdina egin duela baieztatuz.

Adibideak:

1. Lehenengo pertsona: Badakit Heideggeren filosofia gustuko duzula Ion, baina ezin dugu haren filosofia serio hartu, izan ere, orain badakigu Heidegger Nazi alderdiaren kide aktiboa izan zela. Hortaz, garbi dago pertsona ona ez zela.
Bigarren pertsona: Zer?! Hori sekulako tontakeria da, bereziki zuk esaten baduzu.
Aurreko egunean entzun zintudan Voxen alde bozka aktiboki eskatzen.

2. PSOEko kidea: Zuek, ETAren alde zeundetenak, hiltzaile eta terrorista hutsak besterik ez zarete.

Ezker abertzaleko kidea: Eta zuek, GALa antolatu eta finantziatu zenutenak, baita ere.

AZALPENA:

Ez iezadazu esan dietan jarri behar dudarik, zuk ni baino lodiago zaude eta

Arrazoibidea “tu quoque” falaziaren adibide da, jasotako akusazioari edo kritikari argudioekin/arrazoiekin erantzun beharrean, atentzioa desbideratzean saiatzen delako, atentzioa desbideratzeko aurkariak ere akusazioak/kritikak leporatzen duen jokabide berdina egin duela baieztatuz.

Kasu honetan, adierazpena egiten duen pertsonak, dietan jartzeko iradokizunari dietan ez jartzeko arrazoiekin eta argudioekin erantzun beharrean (osasuntsu dagoela defendatuz, adibidez), iradokizuna egin duen pertsonari bera ere lodia dagoela esanez erantzuten dio; hau da, pertsona horren adierazpena/iradokizuna balio gabetzen du iradokizuna egin duen pertsona ere lodia dagoelako (“baita zu ere!” edo “zu gehiago!” erantzunen bertsio sofistikatua nolabait).

9. “Ad Verecundiam” falazia

“Ad verecundiam” falazia ondorio, tesi edo sineskera bat justifikatzeko autoritate desegokiari apelatzen diogunean ematen da. Falazia pertsona batek esaten duena, autoritate bat izateagatik, onartu behar dugula ondorioztatzean oinarritzen da. Baina, noski, pertsona bat autoritate bat izateak ez du inplikatzeko pertsona hori eztabaidatzen den auzian aditua denik

Adibideak:

1. Depresiotik ateratzeko Prozaca hartzen hasi beharko nukeela uste dut, gaur goizean telebistan mediku bat Prozaca iragartzen ikusi dut eta.
2. Begira, agintzen didatena besterik ez dut egiten. Tiro egitea agintzen badidate, tiro egiten dut. Desfilatzea agintzen badidate, desfilatzen dut. Ez dagokit niri gerra hau bidezkoa den ala ez erabakitzea.

AZALPENA

Arnaldo Otegi esan du Euskal Herriko produktu gehiago kontsumitu behar ditugula, atzerriko produktuak baino kalitate hobegokoak baitira.

Ad verecundiam” falazian erortzen da argudio hau, sineskera bat justifikatzeko autoritate desegokiari erreferentzia egiten diolako. Baina, noski, pertsona bat autoritate bat izateak ez du inplikatzeko pertsona hori eztabaidatzen den auzian aditua denik (autoritateak ezjakinak izan daitezke eta, ondorioz, oker egon daitezke).

Adibide partikular honetan, onargarria izan daiteke Arnaldo Otegi Euskal Herriarekin lotutako auzi politikoetan zilegizko autoritatea izatea, baina honek ez du halabarrez inplikatzeko haren adierazpenek bestelako gaien inguruan inolako autoritaterik dutenik. “Kalitate”aren kontzeptua pixka bat iluna izan arren, jakien (produktu mota zehatz bat aipatzearen) kalitatea zehazteko autoritatea dutenak medikuak eta nutrizionistak dira. Guk dakigula, Otegi ez du inolako ezagutzarik edo akreditazio berezirik gai hauen inguruan, beraz, ez da zilegi autoritate gisa aipatzea Euskal Herriko produktuek atzerrikoek baino kalitate handiagoa daukatela ondorioztatzeke.

10. “Ad Populum” falazia

Adierazpen bat arrazoen/argudioen bidez defendatu beharrean, ustez jendearen gehiengoak auzi horren inguruan duen iritzian oinarrituz soilik defendatzen denean, “ad populum” falazia gertatzen da. Hau da, “ad populum” falazian argudio baten ondorioa justifikatuta dagoela kontsideratzen da jendearen gehiengoak ondorio hori onartzen duelako.

Adibideak:

Justiziaren eta injustiziaren inguruan dauden iritzi desberdintasunak handiak izanik ere, badirudi unibertsalki onartzen dela bidezkoak ez diren legeak existitu daitezkeela eta, ondorioz, gauza batek legezkoa ala legez kanpokoak izateak ezin du justiziaren azkeneko irizpidea izan.

2. Jendearen gehiengoak Jainkoren batean sinisten du eta pertsona horiek guztiek ez dute elkar ezagutzen. Honek ezin du kointzidentzia izan: Jainkoak existitu behar du.

AZALPENA

Espanian, jendearen gehiengoak autodeterminazio eskubidearen kontra dago, beraz, autodeterminazio eskubidea ez litzateke onartu beharko.

“Ad populum” falaziaren adierazle garbia da aurreko arrazoibidea, izan ere, ondorioa arrazoen/argudioen bidez defendatu beharrean, ustez jendearen gehiengoak auzi horren inguruan duen iritzian oinarrituz soilik defendatzen da. Baina, noski, jendearen gehiengoak auzi baten inguruan iritzi zehatz bat edukitzeak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko iritzi hori zuzena/egiazkoa denik.

Aurreko arrazoibidean, Espainiako jendearen gehienak autodeterminazio eskubidearen kontra egoteak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko autodeterminazioaren eskubidea onartu behar ez denik. Auzia konplexua eta polemikoa izan arren, ikuspegi normatiboekin eta ideologia politikoekin lotuta baitago, onartuko bagenu, adibidez, autodeterminaziorako eskubidea oinarritzeko eskubidea dela, orduan, jendearen gehiengoak eskubide horren kontra egoteak ez luke garrantzirik izango eskubide hori aitortzeari dagokionez. Edozein kasuan, jendearen gehiengoak neurri politiko baten kontra egoteak ez du halaberrez inplikatzeko neurri hori zilegi, egiazkoa edo onuragarria ez denik (jendearen gehiengoak oker egon baitaiteke).

11. Bi gaizkik ongi bat egiten dute

Gaizki dagoen ekintza bat egiten bada, gaizki dagoen beste ekintza batek lehenengo ekintza txarra konpentsatzeko edo konpontzeko balio du. Bi gaizkik ongi bat egiten dutela dion tesia garrantziarekin lotutako falazia gisa sailkatu ohi da, zeinean ekintza txar bat/kalte bat egin izaneko akusazioari antzeko akusazio batekin erantzuten zaion, lehen momentuan planteatutako arazotik edo akusaziotik atentzioa desbideratzeko helburuarekin.

Adibideak:

1. 1. pertsona: Ez zenioke zure enpresari lapurtu beharko, ilegala da.

2. pertsona: Nire enpresak zergekin iruzurrak egiten ditu, eta hori ere ilegala da.

2. 1. pertsona: Sánchez presidentek gezurra esan zuen Kongresuaren aurrean egindako adierazpenean. Gaizki egon zen hori egitea.

2. pertsona: Baina Rajoy presidente ohiak ere gezurra esan zuen Kongresuaren aurrean duela urte gutxi batzuk!

AZALPENA:

Zerbitzaria afaltzeko eskatu dugun ardo botila kobratzeaz ahaztu da. Deus esan gabe alde egin beharko genuke. Azken finean, afariagatik behar baino gehiago kobratuko bagintu, ez liguke seguruenik ezer esango eta jatetxeak dirua geldituko luke.

Bi gaizkik ongi bat egiten dutela dion ideiarekin arabera, gaizki dagoen ekintza bat egiten bada, gaizki dagoen beste ekintza batekin lehenengo ekintza txarra konpentsatzeko edo konpontzeko balio du. Baina, noski, honek ez du zertan nahi eta nahi ez horrela izan behar, askoren ustez bi gaizkik ez baitute ongi bat egiten.

Kasu honetan, zerbitzariak (ustez) afariagatik behar baino gehiago kobratuko bagintu seguruenik ezer esango ez ligukeela ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko justifikatuta dagoenik guk hari afaltzeko eskatu dugun ardo botila kobratzeaz ahaztu dela ez esatea. Izan ere, bi gaizkik ez dute ongi bat egiten.

12. Anfibologia

Anfibologia falazia sintaktikoa da. Hizkuntzaren esaldiek hitz eta elementu desberdinez osatuta daude (izenak, aditzak, konektoreak, puntuazio zeinuak, e.a.). Elementu hauek ezin dira edozein moduan ordenatu/egituratu, ordena edo egitura desberdinek esanahi desberdinak inplikatzeko baitituzte. Ordenamendu edo egitura ez-argiek eragiten dituzten esanahi anbiguotasunak esaldi edo pasarte baten interpretazio desberdinak eragin ditzakete pertsona ezberdinen eta honek, batzuetan, zalantzarik inferentziak egitera eramango gaitzake. Anbiguotasunarekin nahita jokatzeko denean, helburua normalean entzulea/irakurlea nahastea izan ohi da.

Adibideak:

1. Gizon orok emakume bat maite du. Mikelek Jennifer Connelly maite du. Beraz, gizon orok Jennifer Connelly maite du.

2. Laranja guztiak frutak dira. Mikelen kotxea laranja da. Beraz, Mikelen kotxea fruta bat da.

AZALPENA:

Mikelek Ioni akatsa egin zuela esan zion. Ondorioz, argi dago Mikelek haren akatsak onartzeko ausardia nahikoa duela behintzat

Anfibologiaren falazia, esaldi baten esanahia, esaldian dauden elementu linguistikoaren egituraketa edo ordenamendu sintaktiko traketsarengatik ala anbiguotasun lexikoagatik, zehaztugabea edo anbigua denean ematen da, bereziki anbiguotasunak zalantzarik diren inferentziak egitera eramaten gaituenean.

Kasu honetan, argudioaren lehenengo esaldia anbigua da, ez baitago garbi Mikelek Ioni Mikelek berak akats bat egin zuela esan zion ala Mikelek Ioni Ionek akats bat egin zuela esan zion. Gauzak horrela, egiten den interpretazioaren arabera, argudioaren ondorioa zuzena ala okerra izango da. Mikelek Ioni Ionek akats bat egin zuela esan ziola bezala interpretatzen baldin bada, orduan, argudioaren ondorioa okerra izango da

13. Gehiegizko sinplifikazioa

Gehiegizko sinplifikazioaren falazia auzi edo arazo bat modu sinpleegian aurkezten denean ematen da, auziarekin edo arazoarekin lotuta dauden konplexutasun guztiak alde batera utziz.

Adibideak:

1. Vox immigrazioaren kontrako alderdi politikoa da eta, ondorioz, bozka ematen badiezu arrazista hutsa zara.
2. Munduko zientzialari hoberenek ezin dute ziurtasun osoarekin jakin etzi Sevillan euria egingo duen ala ez. Hortaz, inork ezin du jakin ehun urte barru gertatuko dena klima-aldaketarekin.

AZALPENA:

Zientifikoki frogatu da erretzeak biriketako minbizia sorrarazten duela. Beraz, erretzea debekatzen badugu, biriketako minbiziarekin akabatzea lortuko dugu.

Gehiegizko sinplifikazioaren falazia auzi edo arazo bat modu sinpleegian aurkezten denean ematen da, auziarekin edo arazoarekin lotuta dauden konplexutasun guztiak alde batera utziz. Adibide honetan, kausa bakarraren falazia baten aurrean gaude. Falazia hau fenomeno konplexuak kausa bakar sinpleegi baten bidez azaltzen saiatzen garenean ematen da.

Kasu honetan, egia izanik erretzeak biriketako minbizia eragiten duela, honek ez du inpliketzen biriketako minbiziaren kausa bakarra erretzea denik. Beraz, erretzea debekatzea ez du nahi eta nahi ez biriketako minbiziarekin akabatzea inplikatu (jendeak debekua jarraitzen badu, biriketako minbiziaren intzidentzia murrizteko politika eragingarria izan daitekeen arren).

14. Kausa faltsuaren falazia

Orokorrean, kausa faltsuaren falazia ematen da premisen eta ondorioaren arteko erlazioa errealitatean existitzen ez den ustezko konexio kausal baten menpe dagoenean. Falazia, orduan, A eta B gertakarien arteko lotura kausala existitzen dela baieztatzen denean ematen da, batez ere A gertakaria B gertakariaren aurretik gertatu delako.

Adibideak:

1. Lehenengo premisa: Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatzeko otoitz egin dugu. Bigarren premisa: Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatu zarete. Ondorioa: Beraz, Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatzearen kausa zuen ongizatearen alde guk egindako otoitzak dira.

2. Lehenengo premisa: Azkeneko bi asteetan ez nintzen amona bisitatzera joan.

Bigarren premisa: Duela egun batzuk amona gaixotu eta hil egin zen.

Ondorioa: Nire amona penaz hil zen bisitatzera joaten ez nintzaiolako

AZALPENA:

Marokotik Espainiara etorritako emigranteen kopurua dezente hazi zen 2018an. Pixka bat beranduago, laguntza sozialen gastua izugarri hazi zen Espainian. Hortaz, Marokotik Espainiara etorritako emigranteak izan ziren laguntza sozialen gastua izugarri haztearen arrazoia.

Kausa faltsuaren falazia ematen da premisen eta ondorioaren arteko erlazioa errealitatean existitzen ez den ustezko konexio kausal baten menpe dagoenean. Falazia, orduan, A eta B gertakarien arteko lotura kausala existitzen dela baieztatzen denean ematen da, batez ere A gertakaria B gertakariaren aurretik gertatu delako.

Adibide zehatz honetan, Marokotik Espainiara etorritako immigrazioaren hazkundea laguntza sozialen gastua handitzearen kausa dela argudiatzen da, baina ez da tesi horren aldeko inolako frogarik ematen. Esaten den gauza bakarra da lehendabizi Marokotik Espainiara immigrazioa eman zela eta, ondoren, laguntza sozialen gastuaren hazkundea. Baina Marokotik Espainiara etorritako immigrazioa lehendabizi emateak eta, ondoren, laguntza sozialen gastua handitzeak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko laguntza sozialen hazkundearen kausa Marokotik Espainiara etorritako immigrazioa denik.

15. Malda irristakorraren falazia

Malda irristakorraren falaziak kausalitate faltsuaren falazien azpimultzo bat dira. Malda irristakorraren falazia, argudio baten ondorioa gertaera kate batengatik ustez ematen denean baina gertaera kate hori benetan ematen dela ziurtatzeko frogak nahikoak ez ditugunean suertatzen da.

Adibideak:

1. Netflixen bezeroarentzako arreta zerbitzuak telefonoan itxoiten uzten zaituenean, haserretzen zara. Haserretzen zarenean, oso urduri jartzen zara. Oso urduri jartzen zarenean, istripuak gertatzen dira. Istripuak gertatzen direnean, begian partxe batekin amaitzen duzu. Begian partxe bat eramaten duzunean, jendeak uste du tipo/a gogorra zarela. Jendeak tipo/a gogorra zarela uste duenean, beste pertsona batzuk zeinen gogorra zaren jakin nahi dute. Eta, beste pertsona batzuk zeinen gogorra zaren jakin nahi dutenean, lurrean konorterik gabe amaitzen duzu. Ez amaitu lurrean konorterik gabe. Ahaztu Netflix eta pasa zaituz HBOr.

2. Ezkontza homosexualak onartzen badira banakoen askatasun sexuala errespetatzeko beharrezko pauso gisa, hurrengo pausoak intzestua, pedofilia, zoofilia eta bestelako sexu jarduera antinaturalak onartzea izango dira.

AZALPENA:

Hildako gutxiago egoteko errepideetan abiadura maximoa 120 km/o abiaduratik behera murriztearen kontra nago. Izan ere, 100era jaisten badugu, hildakoak egoten jarraituko du; gutxiago, bale, baina hildakoak egongo dira baita ere. Orduan zuek abiadura 80 kilometrora jaitea proposatuko duzue eta arazoa berdina izaten jarraituko du. Ondoren, zuek kotxeak, motorrak, e.a. erabiltzea debekatzen saiatuko zarete, eta hori guztiz onartezina da. Beraz, ahaztu zaitez errepideetan abiadura maximoa 120 kilometro ordutik behera jaisteaz.

Malda irristakorraren falazia, argudio baten ondorioa gertaera kate kausal batengatik ustez ematen denean baina gertaera kate kausal hori benetan ematen dela ziurtatzeko froga nahikoak ez ditugunean suertatzen da.

Adibidean, errepideetan abiadura maximoa murriztu beharko ez genukeela ondorioztatzen da, hori egiten badugu, azkenean, motorra daukaten ibilgailuak debekatzen amaituko baitugu. Baina, bi gertakarien arteko harreman kausal sendo bat frogatu ezean, pertsona batzuek errepideetan abiadura maximoa murriztu nahi izateak ez du halabeharrez inplikatzeko politika horrek, onartuta izan ezker, motorra daukaten ibilgailuen debekuan amaituko duenik bitarteko pauso kausal ezberdinen bidez.